

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborra biltzeko zerbitzuaren 2019ko bigarren seihiilekoko tasak ordaindu behar dituztenen erroldak jendaurrean jartzea eta tasa horiek kobratzea

Urez hornitzeagatik, estolderiarengatik eta zaborra biltzeko zerbitzuarengatik 2019ko bigarren seihiilekoko tasak ordaindu behar dituztenen errolda egin denez gero, jendaurrean jarriko da 15 egunez. Halaber, iragarki honen bidez, erroldaren barruko likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen.

Zerga norberaren borondatez ordaintzeko araututako epea 2020ko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoa (biak barne) izango da, eta martxoaren azken egunean kobratuko dira helbideraturiko ordainagiriak.

Tasa horiek ordaindu beharra izanik ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte prozedurari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuota kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekarguarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2020ko otsailaren 28a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA